

Urtarrila Otsaila Martxoa



ONTZIAK

256,5kg

BIRZIKLAPENA

Ontzien birziklapenak gora egiten jarraitzen du. Aurtengo lehen hiruhilekoan, edukiontzi horietan aurreko urteko aldi berean baino 56,5 kg gehiago jaso dira.



PAPERA

76.500orri

KONTSUMOA

Urte hasieran areagotu egin ohi da paperaren kontsumoa, besteak beste azterketen garaia izaten delako eta bigarren lauhilekoa hasten delako. Hala ere, 2018ko lehen hiruhilekoan baino 2.500 orri gutxiago kontsumitzea lortu dugu.

2.880kg

BIRZIKLAPENA

Otsailean birziklatu da paper gehien; denera, 1.205 kg. Denera, lehen hiruhilekoan aurreko urtean baino 600 kg gehiago birziklatu dira.

Martxoak 22, Uraren Nazioarteko Eguna

Joan den martxoaren 22an **Uraren Nazioarteko Eguna** ospatu zen. Nazio Batuen Biltzar Nagusiak uraren nazioarteko lehen egun izendatu zuen 1993ko martxoaren 22a, uraren arazoei aurre egin eta egungo egoera hobetzeko helburuz.

Aurtengo leloa "Inor atzean utzi gabe" da. **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendako** promesa nagusiaren egokitzapen bat da: mundu guztiak gozatu behar du garapen iraunkorra aurrerapenaz.


BIDEOA:

<https://youtu.be/valyKP8WehM>



Hona hemen gogoeta egiteko zenbait datu:

- 2,1 milioi pertsonak ez dute edateko urik beren etxean.
- Mundu osoko Lehen Hezkuntzako lau eskolatik batek ez du edateko urik, eta ikasleek babestu gabeko iturrietako ura kontsumitzen dute edo egarri izaten dira.
- Bost urtetik beherako 700 haur baino gehiago hiltzen dira egunero beherakoak jota, ur osasungaitzaren edo saneamendu eskasaren ondorioz.
- Seguruak ez diren edo babestuta ez dauden iturriak erabili behar dituzten munduko pertsonen % 80 landa eremuetan bizi dira.
- Urik ez duten hamar etxetatik zortzitan emakumeak eta neskatilak arduratzen dira ura jasotzeaz.
- 800 emakume baino gehiago hiltzen dira egunero haurdunaldian edo erditzean izandako arazoengatik.
- Beren etxeetatik ihes egin behar izan duten 68,5 milioi pertsonak arazoak dituzte edateko ura lortzeko.
- 159 milioi pertsona inguruk lur gaineko ura duten iturrietatik jasotzen dute edateko ura, besteak beste urmael eta erreketatik.
- 4000 milioi pertsona inguruk —munduko biztanleen ia bi herenek— ur falta larria izaten dute urtean gutxienez hilabete batean.
- Ur eskasia dela eta, munduan 700 milioi pertsonak bizilekuz aldatu behar izango dute, agian, hemendik 2030era bitarte.
- Aberatsenek merke edo oso merke jasotzen dute ur zerbitzua, saneamendua eta kalitatezko higiena, eta txiroenек, berriz, askoz ere garestiago ordaindu behar dute zerbitzu bera edo kalitate okerragokoa jasotzeko.



27°C otsailean

Erregistro meteorologikoak existitzen direla dakigunetik, Euskal Herrian otsailean inoiz izan den temperaturarik altuena erregistratu zen joan den **otsailaren 26an**. Ibai Eder urtegi (Gipuzkoa) erregistratu zen marka: 27,4°C. Udan ere zaila da temperatura horretara iristea. Egun horretan bertan, Igeldon, **25,6°C erregistratu ziren**.

Ez hemen bakarrik, Europako zati handiengan bereziki beroa izan zen otsaila, batez ere Erresuma Batuan, Espainian, Beneluxen, Frantzia eta Italian.

Londresko klimari buruzko E3G aditu taldeko Joseph Duttonek ohartarazi du **kezkatura egon beharko genukeela ezohiko tenperatura hauengatik**. Duttonek azaldu zuen Artikoa berotu izanagatik izan dela European otsailean hain eguraldi beroa: *"Ebidentzia kontuan hartuta iradoki daiteke Artikoa berotu izana jet korrontea desegonkortzen ari dela eta horren ondorioz jet korronte hori aire beroa ekartzen ari dela Europako hainbat lekutara eta aire hotza eskualde polarretatik beste leku batzuetara eramaten"*. Adituak adierazi du litekeena dela patroio honek okerrera egitea urteak igaro ahala. Ohartarazi du markak hausten jarraituko dela eta horrek arazoak ekarriko dizkiela horren klima berora ohituta ez dauden Europa iparraldeko herrialdeei.

Otsail bero honen beste ondorioetako bat izan da sute ugari erregistratu direla kontinentean: **abuztuan erregistratu ohi den antzeko kopurua**. Kantabrian **322 sute** egon ziren denera.

Garbigune berriak lehen solairuan

Hondakinen bereizketa sustatzeko, **proba pilotua ipini genuen habian fakultatean eta ikasgeletako edukiontziak kendu egin ziren**.

Ez da bideragarria ikasgeletan edukiontzi bereziak jartzea, horregatik eman zen pausu hori. Edozein aldaketa egiteak ahalegin bat eskatzen du; eta eskertzekoa da gehiengoaren erantzuna, hots, korridoreetan dauden garbiguneak erabiltzera egokitu izana. Ohitura aldaketa errazteko, **beste bi bilketa gune gehitu ziren lehen zeuden hiru guneei: 16 eta 32 ikasgelen ondoan. Puntu berri hauek etorkizunean mantendu egingo dira**.

Tamalez, denbora honetan, guztiak ez dira aldaketara egokitu eta zenbait ikaskidek hondakinak ikasgeletako mahaietan, aterki ontzietan,... utzi dituzte. Hori dela eta, ikasgeletako edukiontziak berriro ipini behar izan dira. Hala ere, etorkizunean pausoa emateko gai izango garela espero dugu.



Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.ekoscan@ehu.es